



ACUERDO DE CONSEJO DE GOBIERNO POR EL QUE SE MODIFICA LAS NORMAS REGULADORAS DE DOCTORADO EN LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA Y SE APRUEBA EL TEXTO REFUNDIDO RESULTANTE DE ESTA MODIFICACIÓN

Por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 2 de julio de 2014, se aprobaron las Normas de Doctorado de la Universidad Pública de Navarra, publicadas en el Boletín Oficial de Navarra nº 143, de 23 de julio de 2014.

En los años de aplicación de esta normativa, si bien en lo sustancial se ha considerado apropiada, se han podido constatar tanto desde la Escuela de Doctorado de Navarra como desde el Vicerrectorado de Investigación la posibilidad de mejorar los procedimientos, en particular en lo que se refiere a la intervención de revisores externos y en cuanto a la autorización, depósito y defensa de las tesis doctorales.

El Vicerrector de Investigación, a instancia y previo informe favorable de la Escuela de Doctorado de Navarra aprobado en su Consejo de Dirección en 17 de mayo de 2017 (A-06/2017), ha propuesto la modificación de las Normas de Doctorado de la Universidad Pública de Navarra; unas modificaciones que recogen los cambios en la normativa estatal sobre los requisitos de acceso al doctorado (Real Decreto 967/2014) y otras que persiguen la mejora de sus procedimientos desde la admisión y supervisión de los doctorandos en los Programas de Doctorado hasta la calificación final de las tesis doctorales, en aras de favorecer la formación del doctorando como investigador y la calidad de las tesis doctorales que se desarrollan en la Universidad Pública de Navarra

A propuesta del Vicerrector de Investigación, el Consejo de Gobierno, en sesión de 15 de diciembre de 2017,

ACUERDA

Primero.- Aprobar la modificación de las Normas reguladoras del doctorado en la Universidad Pública de Navarra, que se incluyen como Anexo I al presente Acuerdo.

Segundo.- Aprobar el texto refundido de las Normas reguladoras del doctorado en la Universidad Pública de Navarra, que se incluyen como Anexo II al presente Acuerdo, al que se

GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO DOKTORETZA ARAUTZEN DUTEN ARAUAK ALDATZEN DITUENA, ETA ALDAKETAREN ONDORIOZ SORTU DEN TESTU BATEGINA ONESTEN DUENA

2014ko uztailaren 2an, Gobernu Kontseiluak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Doktoretza Araudia onetsi zuen, eta 2014ko uztailaren 23ko 143 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Araudi hau aplikatu den urteetan, Nafarroako Doktoretza Eskolak eta Ikerketako Errektoreordetzak ikusi dute, araudia orokorrean egokia bada ere, badela prozedurak hobetzeko aukera, batez ere bi gairi dagokionez: kanpoko aztertzaileen esku-hartzea, eta doktoretza tesiak baimendu, gorde eta defendatzearen inguruko guztia.

Nafarroako Doktoretza Eskolaren Zuzendaritza Kontseiluak 2017ko maiatzaren 17an onetsi zuen aldeko txostena (A-06/2017) ikusirik, eta Eskolak berak hala eskaturik, Ikerketako errektoreordeak proposamena egin du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Doktoretza Araudia aldatzeko. Aldaketetako batzuek bildu nahi dituzte Estatuko araudiak doktoretzan sartzeko baldintzei dagokienez egin dituen aldaketak (967/2014 Errege Dekretua); beste batzuek prozedurak hobetu nahi dituzte, doktoregaiak doktoretza programetan onartzeko eta gainbegiratzeko prozeduretatik hasita, doktoretza tesien azken kalifikazioraino, doktoregaiak ikertzaile-prestakuntza hobea izan dezan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten diren doktoretza tesien kalitatea hobea izan dadin.

Honako hau da Gobernu Kontseiluak, Ikerketako errektoreordeak proposatuta, 2017ko abenduaren 15eko bilera hartu duen

ERABAKIA

Lehenago.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Doktoretza arautzen duten Arauen aldaketa onestea. Aldaketak erabaki honen I. Eranskinean datoz.

Bigarrena.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Doktoretza arautzen duten Arauen testu bategina onestea. Arauak erabaki honen II. Eranskinean

re

incorporan las modificaciones establecidas en el Anexo I.

Tercero.- Publicar el presente Acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.

Cuarto.- El presente Acuerdo entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

datoz, eta sartuta dauzkate I. Eranskinean ezarri diren aldaketak.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

EL PRESIDENTE / KONTSEILUBURUA

Alfonso Carlosena
Rector / Errektorea



ANEXO I
MODIFICACIÓN DE LAS NORMAS
REGULADORAS DEL DOCTORADO EN
LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE
NAVARRA

Las Normas reguladoras del doctorado en la Universidad Pública de Navarra se modifican con el siguiente contenido:

Uno. Modificar los apartados 2, 3 y 6 del artículo 4, que quedan redactados en los siguientes términos:

2.- La Comisión Académica estará formada por un coordinador, que la presidirá, y un número total de miembros no inferior a cuatro ni superior a ocho. La composición de la Comisión será establecida por el Comité de Dirección de la Escuela de Doctorado de Navarra.

3.- El Coordinador será, de acuerdo con el RD99/2011, nombrado por el Rector y deberá acreditar haber dirigido al menos dos tesis doctorales, y estar en posesión de al menos dos períodos de actividad investigadora reconocidos de acuerdo con las previsiones del RD1086/89. El resto de miembros de la Comisión serán nombrados por el Rector, a propuesta del Coordinador. Todos ellos deberán poseer el título de doctor y podrán pertenecer a otras entidades e instituciones ajenas a la Universidad Pública de Navarra implicadas en el I+D+i, en particular OPIs. El miembro más joven actuará como secretario.

6.- Las reuniones de la Comisión Académica deberán ser registradas levantando acta de las mismas, reflejando los acuerdos adoptados, que deberán ser custodiadas por el secretario y se remitirá una copia de ellas al Comité de Dirección de la EDONA.

Dos. Suprimir el apartado 4 del artículo 4, que queda sin contenido.

I. ERANSKINA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE
PUBLIKOAN DOKTORETZA
ARAUTZEN DUTEN ARAUEN
ALDAKETA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktoretza arautzen duten arauak aldatzen dira, eduki honekin:

Bat. 4. artikuluko 2., 3. eta 6. idatz-zatiak honela geratuko dira:

2.- Irakaskuntza batzordea honako hauek osatuko dute: koordinatzaile bat, burua izango dena, eta gutxienez ere lau kide eta gehienez ere zortzi kide. Nafarroako Doktoretza Eskolako Zuzendaritza Batzordeak ezarritako du batzordearen osaera.

3.- 99/2011 EDarekin bat etorritz, errektoreak izendatuko du koordinatzailea, eta egiaztatu beharko du gutxienez ere bi doktoretza tesi zuzendu dituela, eta gutxienez ere, 1086/89 EDan ezarritakoarekin bat etorritz, aitortutako ikerketa jarduerako bi aldi dituela. Batzordeko gainerako kideak errektoreak izendatuko ditu, koordinatzaileak proposatuta. Horiek guztiek doktore titulua izan beharko dute, eta Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpokoak diren eta I+G+b-ren arloan aritzen diren beste entitate eta erakunde batzuetakoak ere izaten ahalko dira, bereziki IEPetakoak. Batzordekide gazteena idazkaria izango da.

6.- Irakaskuntza batzordearen bilerak akten bidez erregistratuko dira, eta aktetan hartutako erabakiak jasoko dira. Idazkariak gordeko ditu aktak, eta haien kopia bat Nafarroako Doktoretza Eskolaren Zuzendaritza Taldera bidaliko da.

Bi. 4. artikularen 4. idatz-zatia ezabatzea, edukirik gabe geratuko baita.

Tres. Modificar el subapartado b, del apartado 2 del artículo 5, que queda redactado en los siguientes términos:

b) Estar en posesión de un título oficial español de Graduado o Graduada, cuya duración, conforme a normas de derecho comunitario, sea de al menos 300 créditos ECTS. Dichos titulados deberán cursar con carácter obligatorio los complementos de formación a que se refiere el artículo 7.2 del Real Decreto 99/2011, de 28 de enero, salvo que el plan de estudios del correspondiente título de grado incluya créditos de formación en investigación, equivalentes en valor formativo a los créditos en investigación procedentes de estudios de Máster.

Cuatro. Suprimir el subapartado e) del apartado 2 del artículo 5, que queda sin contenido, e incorporar un nuevo apartado g) con el siguiente contenido:

g) Estar en posesión de un título universitario oficial que haya obtenido la correspondencia al nivel 3 del Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior, de acuerdo con el procedimiento establecido en el Real Decreto 967/2014, de 21 de noviembre, por el que se establecen los requisitos y el procedimiento para la homologación y declaración de equivalencia a titulación y a nivel académico universitario oficial y para la convalidación de estudios extranjeros de Educación Superior, y el procedimiento para determinar la correspondencia a los niveles del Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior de los títulos oficiales de Arquitecto, Ingeniero, Licenciado, Arquitecto Técnico, Ingeniero Técnico y Diplomado.

Cinco. Modificar los apartados 2 y 6 del artículo 6, que quedan redactados en los siguientes términos:

2. La solicitud vendrá acompañada por una memoria sobre dicho proyecto de tesis, avalada por un doctor que reúna los requisitos exigidos para ser director, y por un grupo de investigación reconocido en la UPNA. Asimismo deberá ser avalada

Hiru. 5. artikuluko 2. idatz-zatiaren b) letra aldatzea, honela geratuko baita:

b) Espainiako graduatu titulu ofizial bat dutenek, gutxienez ere 300 ECTS kredituko iraupena duena Europako Erkidegoko zuzenbideko arauen arabera. Tituludun horiek nahitaez egin beharko dituzte urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuko 7.2 artikulua aipatutako prestakuntza-osagarriak, dagokion gradu tituluaren ikasketa planak master ikasketetako ikerketa kredituen prestakuntza balio baliokidea duten ikerkuntzako prestakuntza kredituak dituenen salbu.

Lau. 5. artikulua 2. idatz-zatiaren e) letra kentzea, edukirik gabe geratuko baita, eta g) letra berri bat gehitzea, eduki honekin:

g) Unibertsitate titulu ofizial baten jabe izatea, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. mailakoaren baliokidetzat hartu duena, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuak ezarritako prozeduraren arabera. Dekretu horren bidez ezartzen dira betebeharrak eta prozedura homologatzeko eta baliokidetzat aitortzeko, unibertsitateko titulu ofiziala eta maila akademiko ofiziala izan daitezkeen, eta unibertsitateko atzerriko ikasketak baliokidetzeko, bai eta prozedura ere zehazteko zein den titulu ofizial hauen egokitasuna kualifikazioen Espainiako esparruen mailekin: arkitektoa, ingeniaria, lizentziaduna, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa eta diplomaduna.

Bost. 6. artikuluko 2. eta 6. idatz-zatiak aldatzea, eduki honekin:

2. Eskaerarekin batera tesi proiektu horri buruzko oroitidazki bat aurkeztuko dute, eta zuzendaria izateko betekizunak beteko dituen doktore batek, eta NUPen aitortpena daukan ikerketa talde batek bermatuko dute. Halaber, ikerketa Nafarroako Unibertsitate

por un Departamento de la Universidad Pública de Navarra en el que vaya a realizarse la investigación o, en su caso, por el instituto o estructura de investigación correspondiente de la Universidad Pública de Navarra

6. La solicitud se presentará en la Escuela de Doctorado de Navarra, con el formato que establezca el Comité de Dirección de la misma. La Dirección de la Escuela, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos de acceso y verificado que la solicitud se acompaña de la documentación indicada en los puntos anteriores la remitirá a la Comisión Académica del Programa correspondiente que decidirá sobre la admisión del doctorando en el programa.

Seis. Modificar el párrafo primero del artículo 7, que queda redactado en los siguientes términos:

La Comisión Académica del Programa de Doctorado deberá resolver sobre la admisión o no del solicitante al mismo. Deberá para ello tener en cuenta los siguientes criterios:

Siete. Modificar los apartados 2 y 4 del artículo 8, que quedan redactados en los siguientes términos:

2. Si el acuerdo de la Comisión es contrario a la admisión, deberá indicar los motivos de su denegación en base a los criterios indicados en el artículo anterior.

4. Si el director es profesor de la Universidad Pública de Navarra y cumple los requisitos del artículo 11.3 de la presente normativa, ejercerá también las funciones de tutor.

En el caso de que el director no cumpla los requisitos establecidos en el artículo 11.3 de la presente normativa, le será asignado también al doctorando un tutor que sea profesor de la Universidad Pública de Navarra y que cumpla estos requisitos.

Ocho. Incorporar en el artículo 8 un nuevo apartado número 7, con el siguiente contenido:

7. Los acuerdos adoptados por la Comisión Académica sobre la admisión a los programas de doctorado y la asignación de directores de tesis, codirectores y tutores, se

Publikoko zer sailetan egingo den, sail horrek bermatu beharko du, edo, hala badagokio, Nafarroako Unibertsitate Publikoko dagokion ikerketa institutuak edo egiturak.

6. Eskabidea Nafarroako Doktoretza Eskolan aurkeztuko da, Zuzendaritza Batzordeak eskatzen duen formatuarekin. Eskolako Zuzendaritzak sartu ahal izateko betebeharrak betetzen direla eta eskabidearekin batera aurreko puntuetan aipatzen den dokumentazioa eransten dela egiaztatuko du, eta ondoren dagokion programaren irakaskuntza batzordera bidaliko du. Batzorde honek erabakiko du doktoregaia onartzen duen edo ez.

Sei. 7. artikuluko lehen lerroaldea aldatzea, honela geratuko baita:

Doktoretza programako irakaskuntza batzordeak erabaki beharko du eskatzailea programan onartzen duen edo ez. Horretarako kontuan hartu beharko ditu irizpide hauek:

Zazpi. 4. artikuluko 2. eta 8. idatz-zatiak aldatzea, eduki honekin:

2. Batzordeak onarpenaren aurkako erabakia hartzen badu, ukatzeko arrazoen berri eman beharko du, aurreko artikuluan aipatutako irizpideekin bat etorriz.

4. Zuzendaria Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea bada, eta araudi honetako 11.3 artikulua ezartzen dituen betebeharrak betetzen baditu, tutore eginkizunak ere egingo ditu.

Zuzendariak ez baditu betetzen araudi honetako 11.3 artikulua ezartzen dituen betebeharrak, doktoregaiari Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea den eta betebeharrak betetzen dituen tutore bat esleitzeko zaio.

Zortzi. 8. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzea, eduki honekin:

7. Irakaskuntza batzordeak doktoretza-programetan onartzeari buruz eta tesi zuzendariak, zuzendari-kideak eta tutoreak esleitzeari buruz hartzen dituen erabakiak

trasladarán a la Escuela de Doctorado de Navarra. El Director de la Escuela adoptará la Resolución correspondiente, y la notificará a los aspirantes, y, en su caso, a los directores, codirectores, tutores y a cualquier otro interesado.

Nueve. Suprimir el último párrafo del subapartado e) del apartado 3 del artículo 9, e incorporar en este apartado un nuevo subapartado f), con el siguiente contenido:

f) El Comité de Dirección de la EDONA aprobará un modelo de Compromiso de Tesis al que deberán ajustarse los interesados.

Diez. Suprimir el apartado 4 del artículo 10, que queda sin contenido.

Once. Modificar el apartado 3 del artículo 11, que queda redactado en los siguientes términos:

3. El tutor será un profesor doctor de la Universidad Pública de Navarra con experiencia investigadora acreditada. El tutor tendrá la misión de velar por la interacción del doctorando con la Comisión Académica del Programa y con la EDONA.

Doce. Suprimir los apartados 4 a 9 del artículo 11, que quedan sin contenido.

Trece. Modificar el enunciado y los apartados 1 a 3 del artículo 12, que quedan redactados en los siguientes términos:

Artículo 12. Elaboración y seguimiento de la tesis doctoral.

1. La elaboración de la tesis deberá ser coherente con el Plan de Investigación. Si las modificaciones no obedeciesen a errores materiales o de hecho y fuesen sustantivas, implicando un cambio esencial en las cuestiones abordadas y en la supervisión, se deberá iniciar el proceso de aprobación de un nuevo Plan según lo previsto en esta normativa.

2. Cualquier cambio en la supervisión de la tesis deberá ser aprobado por la Comisión Académica e informado al Director de la EDONA, que adoptará la Resolución correspondiente, y la notificará a los interesados.

El cambio de director de tesis, si se mantiene el Plan de Investigación, deberá contar además con el

Nafarroako Doktoretza Eskolara helaraziko dira. Eskolako zuzendariak dagokion ebazpena hartuko du, eta izangaiei jakinaraziko die, eta hala badagokio, zuzendariei, zuzendari-kideei, tutoreei eta beste edozein interesduni ere bai.

Bederatzi. 9. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letrako azken lerroaldea kentzea, eta f) letra berri bat gehitzea, eduki honekin:

f) Nafarroako Doktoretza Eskolako Zuzendaritza Batzordeak tesi konpromisoaren eredu bat onetsiko du, eta interesdunek eredu horri jarraitu beharko diote.

Hamar. 4. artikulua 10. idatz-zatia ezabatzea, edukirik gabe geratuko baita.

Hamaika. 11. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea, honela geratuko baita:

3. Tutorea Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle doktore bat izango da, ikerketa-esperientzia egiaztatua daukana. Tutoreak zainduko du doktoregaiaren eta programako irakaskuntza batzordearen eta NADOEren arteko elkarrengana.

Hamabi. 11. artikuluko 4.etik 9.erako idatz-zatiak kentzea, edukirik gabe geratuko baitira.

Hamahiru. 12. artikuluko izenburua eta 1.tik 3.erako idatz-zatiak aldatzea, honela geratuko baitira:

12. artikulua. Doktoretza tesiaren prestaketa eta jarraipena.

1. Tesia prestatzeko moduak koherentea izan behar du Ikerketa Planarekin. Aldaketak ez badira akats materialak edo egitezkoak zuzentzekoak, eta aldiz, oinarritzkoak badira, eta aztertutako auziak eta ikuskapena aldatzen badituzte, plan berri bat egin beharko da, arautegi honetan ezarritakoaren arabera.

2. Irakaskuntza batzordeak onetsi beharko du tesiaren ikuskapenean egiten den edozein aldaketa, zeina NADOEko zuzendariari jakinarazi beharko baitzaio, honek dagokin ebazpena hartu eta interesdunei jakinaraz diezaien.

Tesiaren zuzendaria aldatzeko, ikerketa planari eusten bazaio, aurreko zuzendariak idatzizko adostasun esplizitua eman behar du.

consentimiento explícito por escrito del anterior director.

3. Anualmente, la Comisión Académica del Programa evaluará el desarrollo del Plan de Investigación previsto y el Documento de Actividades Individualizado, junto con los preceptivos informes del tutor y director. En caso de evaluación negativa, que deberá ser motivada, el doctorando deberá ser evaluado de nuevo en el plazo de seis meses. En caso de producirse una nueva evaluación negativa, el doctorando causará baja definitiva en el programa.

La Comisión Académica elevará las propuestas de baja definitiva al Director de la EDONA, que adoptará la Resolución correspondiente, y la notificará al doctorando y a cualquier otro interesado.

Catorce. Incorporar el artículo 13 al Título Tercero y modificar el enunciado y los apartados 1 a 3 de este artículo, que quedan redactados en los siguientes términos:

Artículo 13. Tesis doctoral

1.- La tesis doctoral consistirá en un trabajo original de investigación elaborado por el candidato en cualquier disciplina, y dentro de alguna línea de investigación de los programas.

2.- La memoria de tesis doctoral podrá redactarse en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Foral de Navarra, así como en cualquier idioma reconocido como oficial en la UE. En cualquier caso, el resumen y las conclusiones de la misma deberán proporcionarse además en castellano, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 22 para la obtención de la mención de Doctor Internacional. Dicha memoria deberá realizarse en el formato de soporte electrónico que se establezca, al objeto de facilitar su difusión.

3.- Podrá admitirse también, si así lo autoriza la Comisión Académica, la presentación de la tesis en un formato consistente en un compendio de artículos en los que el doctorando sea

3. Urtero, programaren irakaskuntza batzordeak ezarritako ikerketa planaren garapena eta Banakako Jardueren Dokumentua ebaluatuko ditu, tutorearen eta zuzendariaren nahitaezko txostenekin batera. Aurkako ebaluazioa egiten badu, zeina arrazoitua izango baita, doktoregaiari berriro ebaluazioa egingo zaio sei hilabeteko epean. Ebaluazioa berriro aurkako bada, doktoregaia behin betiko baztertua izango da programatik. Irakaskuntza batzordeak behin betiko baja proposamenak NADOEko zuzendariari helaraziko dizkio, honek dagokion ebazpena hartu eta doktoregaiari eta beste edozein interesduni jakinaraz diezaien.

Hamalau. 13. artikuluari Hirugarren Titulua gehitzea, eta artikulua honetako izenburua eta 1.tik 3.erako idatz-zatia aldatzea, honela geratuko baitira:

13. artikulua. Doktoretza tesia

1.- Doktoretza tesia izangaiak edozein diziplinatan egindako jatorrizko ikerketa lan bat izango da, eta programetako ikerketa-lerroren batekoa.

Doktoretza-tesiaren txostena Nafarroako Foru Erkidegoak dituen bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatziko da, bai eta Europar Batasuneko edozein hizkuntza ofizialetan ere. Nolanahi ere, txostenaren laburpena eta ondorioak gaztelaniaz eman beharko dira, Nazioarteko doktore aipamena lortzeko 22. artikulua ezarritakoa galarazi gabe. Txosten hori ezarritako euskarri elektronikoan egingo da, zabalpena errazteko.

3.- Irakaskuntza batzordeak baimentzen badu, sailek onartu egingo dute tesia artikuluen laburpen bat bezala aurkeztea, zeinetan doktoregaia egile aipagarri bat izango baita. Nafarroako

un autor relevante. La EDONA regulará en su propia normativa el procedimiento de autorización y los requisitos que han de cumplir estas tesis.

Quince. Suprimir los apartados 4 a 8 del artículo 13, que quedan sin contenido.

Dieciséis. Modificar el enunciado y los apartados 1 a 4 del artículo 14, que quedan redactados en los siguientes términos:

Artículo 14. Solicitud y autorización de depósito

1.- Antes de la finalización de los plazos legalmente establecidos en el RD 99/2011 para la compleción de la tesis doctoral, el director deberá solicitar a la Comisión Académica del Programa que autorice su depósito, para su posterior defensa y calificación, presentando la memoria de la tesis en versión electrónica, junto con su currículum vitae y el impreso de autorización de publicación a que se refiere el artículo 20.

2.- En el caso de que el director de tesis no hubiese solicitado el depósito de la tesis doctoral, el doctorando podrá hacerlo por sí mismo antes de la finalización de los plazos legalmente establecidos en el RD 99/2011, presentando la memoria de la tesis doctoral. En este supuesto, la Comisión Académica determinará si procede la admisión a trámite, para lo que podrá asesorarse por expertos ajenos a la Universidad Pública de Navarra.

3.- Una vez recibida la solicitud del director de tesis, o, en su caso, una vez admitida la tramitación de la solicitud del doctorando, la Comisión Académica propondrá al Comité de Dirección de la EDONA el nombramiento de dos revisores externos.

Estos dos revisores externos podrán ser miembros del Tribunal encargado de juzgar la tesis doctoral si cumplen los requisitos del artículo 16 de la presente Normativa

Los revisores externos no podrán ser tutores, directores o codirectores de

Doktoretza Eskolak bere araudian arautuko ditu baimena emateko prozedura eta tesi hauek bete behar dituzten betekizunak.

Hamabost. 13. artikuluko 4.etik 8.erako idatz-zatiak kentzea, edukirik gabe geratuko baitira.

Hamasei. 14. artikuluko izenburua eta 1.tik 4.erako idatz-zatia aldatzea, honela geratuko baitira:

14. artikulua. Gordailua egiteko eskatzea eta baimentzea.

1.-99/2011 EDan doktoretza tesia egiteko ezarritako legezko epeak igaro baino lehen, zuzendariak programako irakaskuntza batzordeari eskatuko dio tesia gordailuan ematea baimentzeko, gero aurkezteko eta kalifikatzeko, tesiaren txostena bertsio elektronikoa aurkeztuta, bere curriculum vitaearekin eta 20. artikuluan aipatzen den argitaratze baimenaren inprimakiarekin batera.

2.- Baldin eta tesi zuzendariak ez badu eskatu doktoretza tesiaren gordailua egiteko, doktoregaiak berak eskatzen ahalko du 99/2011 EDk ezartzen dituen legezko epeak amaitu baino lehen, horretarako doktoretza tesiaren oroitidazkia aurkeztuz. Kasu honetan, irakaskuntza batzordeak erabakiko du tramitean onartuko duen edo ez duen onartuko, eta horretarako Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpoko adituen aholkularitza eskatzeko aukera izango du.

3.- Tesi zuzendariaren eskaera jaso eta gero, edo, hala dagokionean, doktoregaiaren eskabidea tramitean onartu eta gero, irakaskuntza batzordeak proposatuko dio NADOEko Zuzendaritza Batzordeari kanpoko bi berrikusle izendatzeko.

Kanpoko bi berrikusle hauek doktoretza tesia epaitzen duten epaimahaiko kideak izaten ahalko dira, baldin eta araudi honetako 16. artikulua ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte.

Kanpoko berrikusleak ez dira inoiz izango tutoreak edo tesi zuzendariak

tesis

4.- Una vez aprobado por el Comité de Dirección de la EDONA el nombramiento de los revisores externos, la comisión iniciará el proceso de evaluación para la autorización del depósito. En este proceso, la Comisión Académica verificará el cumplimiento de los requisitos exigidos en el Plan de Formación de la EDONA y en la memoria de verificación del programa. En caso de cumplirlos, se remitirá la memoria de la tesis a los dos revisores externos para su revisión y emisión de informe. La organización de esta revisión corresponde a la Comisión Académica. Los revisores externos deben entregar al Coordinador de la Comisión Académica del Programa el informe de la valoración de la tesis doctoral en el plazo máximo de un mes desde su nombramiento en el formato que la EDONA disponga.

Diecisiete. Incorporar en el artículo 14 tres nuevos apartados, números 5 a 7, con el siguiente contenido:

5.- La Comisión Académica, a la vista de los informes de los revisores externos, requerirá en un plazo de 15 días al doctorando para que bajo la supervisión del director de tesis, modifique la memoria, si procede, en función de los informes recibidos, para lo que le concederá un plazo máximo de 3 meses.

6.- En un plazo máximo de cuatro meses, contados desde el día siguiente al de la emisión del informe por los revisores externos, la Comisión Académica resolverá si autoriza o no el depósito tanto de la memorias iniciales, como de las que se hayan modificado a la vista de los informes de los revisores externos, y comunicará su decisión a la dirección de la EDONA. El Director de la EDONA, a la vista de la resolución de la Comisión, adoptará el acuerdo de autorizar o no el depósito de tesis, y lo trasladará a todas las partes firmantes del compromiso de tesis y del Plan de Investigación.

7.- En caso de que la Comisión Académica autorice el depósito, procederá a proponer al Comité de

edo zuzendari-kideak.

4.- NADOEko Zuzendaritza Batzordeak onesten duenean kanpoko berrikusleen izendapena, batzordeak hasiera emango dio gordailua egitea baimentzeko ebaluazio prozesuari. Prozesu honetan, irakaskuntza batzordeak egiaztatuko du NADOEko Prestakuntza Planean eta programa egiaztatzeko oroitidazkian ezartzen diren betebeharrak betetzen direla. Betetzen badira, tesiaren oroitidazkia kanpoko bi berrikusleei bidaliko zaie, hauek berrikusi eta txostena egin dezaten. Berrikusketa hau antolatzea irakaskuntza batzordeari dagokio. Kanpoko berrikusleek eman behar diote programako irakaskuntza batzordeko koordinatzaileari tesia balioesten duen txosten bat, hilabeteko epean izendatzen dituztenetik, NADOEK ezartzen duen formatua erabiliz.

Hamazazpi. 14. artikuluari 5.etik 7.erako hiru idatz-zati berri gehitzea, eduki honekin:

5.- Irakaskuntza batzordeak, kanpoko berrikusleen txostenak ikusirik, eskatuko dio doktoregaiari, 15 eguneko epean, oroitidazkia aldatzeko tesi zuzendariaren ikuskapenarekin, hala badagokio, jasotako txostenen edukia kontuan hartuz, eta horretarako 3 hilabeteko epea emango zaio, gehienez ere.

6.- Lau hilabeteko epean, gehienez ere, kanpoko berrikusleek beren txostenak eman eta biharamunetik kontatuta, irakaskuntza batzordeak ebatziko du ea baimena ematen duen edo ez, hasierako oroitidazkiaren gordailua egiteko, edo kanpoko berrikusleen txostenen arabera aldatu direnenak, eta NADOEko zuzendaritzari emango dio bere erabakiaren berri. NADOEko zuzendariak, batzordearen ebazpena ikusita, tesiaren gordailua egiteko baimena emateko edo ez emateko erabakia hartuko du, eta tesi konpromisoa eta ikerketa plana izenpetu duten guztiei helaraziko zaie.

7.- Irakaskuntza batzordeak gordailu egitea onesten badu, epaimahaiko kideak

Dirección de la EDONA los miembros del Tribunal.

El Comité, una vez verificada la idoneidad de los miembros del Tribunal propuestos por la Comisión Académica, procederá a su nombramiento.

Dieciocho. Modificar el enunciado y los apartados 1 y 2 del artículo 15, que quedan redactados en los siguientes términos:

Artículo 15. Depósito de tesis.

1.- Una vez obtenida la autorización, el doctorando en el plazo de 15 días depositará un ejemplar de la tesis doctoral, y su versión electrónica, en la Escuela de Doctorado, previo pago de los correspondientes precios públicos.

2.- La EDONA comunicará a todos los Departamentos de la Universidad Pública de Navarra en un plazo máximo de tres días hábiles, el depósito de la tesis. La tesis presentada quedará en depósito durante un plazo de quince días, a contar desde la fecha de comunicación a los departamentos, y podrá ser examinada por cualquier doctor, que podrá formular alegaciones, como actuación previa a la autorización a la defensa de tesis por la EDONA.

Diecinueve. Incorporar en el artículo 15 dos nuevos apartados, números 3 y 4, con el siguiente contenido:

3.- Transcurrido el tiempo de depósito a que se hace referencia en el apartado anterior, la EDONA, a la vista de los escritos recibidos y una vez oída la Comisión Académica, decidirá si autoriza la defensa de la tesis, o si, por el contrario, procede retirarla. La decisión de la EDONA puede consistir en devolver al doctorando la tesis con instrucciones para su modificación que deberán obligatoriamente atenderse, habilitando un plazo para realizarlas mediante la presentación de un nuevo ejemplar de la tesis en soporte electrónico.

4.- Las decisiones relativas a la autorización de defensa de tesis se adoptarán por acuerdo del Comité de Dirección de la EDONA, en el plazo de

nor izango diren proposatuko dio NADOEko Zuzendaritza Batzordeari.

Batzorde honek, irakaskuntza batzordeak proposatu dituen epaimahaikideak egokiak direla egiaztatu eta gero, izendatu egingo ditu.

Hamazortzi. 15. artikuluko izenburua eta 1. eta 2. idatz-zatia aldatzea, honela geratuko baitira:

15. artikulua. Tesiaren gordailua egitea.

1.- Baimena lortu ondoren, doktoregaiak, 15 eguneko epean, doktoretza tesiaren bi ale eta bere bertsio elektronikoa aurkeztuko ditu Doktoretza Eskolan, aurretiaz dagozkion prezio publikoak ordaindu eta gero.

2.-Nafarroako Doktoretza Eskolak Nafarroako Unibertsitate Publikoko sail guztiei hiru egun baliaduneko epean jakinaraziko die tesia gordailuan eman dela. Aurkeztutako tesia gordailuan geldituko da, sailei jakinarazi zaien egunetik hasita hamabost eguneko epean, eta edozein doktorek aztertu eta alegazioak egiteko aukera izango du, NADOEk tesiaren defentsa baimendu baino lehen.

Hemeretzi. 15. artikuluari 3. eta 4. idatz-zatiak gehitzea, eduki honekin:

3.-13. artikulua aipatzen duen gordailuan edukitzeko denbora iraungita, jasotako idazkiak ikusirik, Nafarroako Doktoretza Eskolak erabakiko du baimena ematen duen edo ez tesiaren defentsa egiteko, edo, bestela, egoki den tesia tramitetik kentzea. Nafarroako Doktoretza Eskolak erabakitzen ahal du tesia doktoregaiari itzultzea lana aldatzeko jarraibideekin. Jarraibide horiek betebeharrekoak izango dira horretarako ezarriko den epean, eta tesiaren beste ale bat aurkeztu beharko du doktoregaiak euskarri elektronikoa.

4.- Tesia defenditzeko baimenari buruzko erabakiak NADOEren Zuzendaritza Batzordeak hartuko ditu, hilabeteko epean, 2. idatz-zatian

un mes contado desde el día siguiente al de la finalización del plazo de alegaciones establecido en el apartado 2.

Veinte. Modificar el enunciado y los apartados 1 a 4 del artículo 16, que quedan redactados en los siguientes términos

Artículo 16. Tribunal

1.- El Tribunal encargado de juzgar la tesis doctoral será nombrado por acuerdo del Comité de Dirección de la EDONA, a propuesta de la Comisión Académica, oídos, en su caso, los especialistas que la Comisión Académica estime oportuno.

Entre estos miembros, a propuesta de la Comisión, el Comité de Dirección de la EDONA designará al Presidente, Vocal y Secretario

El Tribunal se nombrará, como máximo, en el plazo de un mes desde la adopción del acuerdo de autorización del depósito.

2. El Tribunal estará formado por tres miembros titulares y se designará, como mínimo, un suplente por cada uno de ellos, debiendo cumplir todos ellos, titulares y suplentes, el requisito de ser doctores con experiencia investigadora acreditada de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la presente Normativa.

Como máximo un miembro titular y su suplente correspondiente podrán ser doctores pertenecientes a la Universidad Pública de Navarra.

3.- Los dos revisores externos que en virtud de lo dispuesto en el artículo 14 de la presente Normativa hayan participado en el proceso de autorización para su depósito, podrán ser miembros de este Tribunal siempre que cumplan los requisitos establecidos en el presente artículo.

4. No podrán formar parte del Tribunal el tutor, el director o codirectores de la tesis, salvo en los casos de acuerdos bilaterales de cotutela de tesis con universidades extranjeras, en los que se deberá tener en cuenta lo que establezcan los correspondientes convenios.

ezartzen den alegazio epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hogei. 16. artikuluko izenburua eta 1.tik 4.erako idatz-zatiak aldatzea, honela geratuko baitira:

16. artikulua. Epaimahaia

1.- NADOEko Zuzendaritza Batzordeak hartuko du doktoretza tesia epaitu behar duen epaimahaia izendatzen duen erabakia, irakaskuntza batzordeak proposatuta, eta irakaskuntza batzordeak egoki jotzen dituen adituei entzun eta gero, hala badagokio.

Kide hauen artean, batzordeak proposatuta, NADOEko Zuzendaritza Batzordeak burua, epaimahaikideak eta idazkaria izendatuko ditu.

Epaimahaia izendatuko da gordailua egitea baimentzen duen erabakia hartzen denetik hilabeteko epean, gehienez.

2. Hiru kide titularrek osatuko dute epaimahaia, eta horietako bakoitzarentzako ordezkari bana esleituko da, gutxienez. Denek, titularrek eta ordezkariak, bete behar dituzte araudi honetako 18. artikuluko ezartzen duen baldintzak, hau da, ikerketan esperientzia egiaztatuta daukaten doktoreak izatea.

Gehienez ere epaimahaikide titular bat, eta bere ordezkaria, Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoreak izango dira.

3.- Araudi honetako 14. artikuluko ezartzen duenarekin bat etorritik, gordailua egiteko baimena emateko prozesuan parte hartu duten kanpoko bi berrikusleak epaimahai honetako kide izaten ahalko dira, baldin eta artikuluko ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

4. Ez dira epaimahaikide izango, tesiaren tutorea, zuzendaria edo zuzendari kideak, atzerriko unibertsitateekin batera tesiaren tutoretza egiteko aldebiko hitzarmenen kasuan izan ezik, eta horietan kontuan hartuko da dagozkion hitzarmenek ezarritakoa.

Veintiuno. Suprimir el apartado 5 del artículo 16, que queda sin contenido.

Veintidós. Modificar los apartados 1, 3, 4 y 7 del artículo 18, que quedan redactados en los siguientes términos

1.- En el plazo máximo de 15 días contados a partir del día siguiente al del nombramiento del Tribunal encargado de juzgar la tesis doctoral, el Comité de Dirección de la EDONA pondrá a disposición de los miembros titulares el ejemplar de la tesis en soporte electrónico junto con el currículum vitae del doctorando

Asimismo, en este plazo, el Comité de Dirección de la EDONA pondrá a disposición del Presidente del Tribunal los informes emitidos en virtud de lo dispuesto en el artículo 14 de la presente normativa por los revisores externos. El Presidente del Tribunal, caso de que estos informes planteen algunas objeciones, podrá decidir el aplazamiento del acto de defensa, permitiendo al doctorando rebatirlas. En todo caso, este aplazamiento no extenderá los plazos a los que hacer referencia el siguiente apartado.

3.- En el plazo máximo de tres meses desde la puesta a disposición del ejemplar de tesis en soporte electrónico a los miembros del Tribunal, y con una antelación mínima de 15 días naturales y máxima de tres meses a su celebración, el secretario del Tribunal comunicará a la EDONA la convocatoria del acto de defensa. La convocatoria indicará con precisión la fecha, el lugar y la hora del acto.

4.- En el caso de que el Tribunal incumpla los plazos establecidos en el apartado anterior, el Comité de Dirección de la EDONA podrá acordar requerir al Presidente que proceda inmediatamente a convocar el acto de defensa, o bien revocar el nombramiento y solicitar a la Comisión Académica del Programa que proponga un nuevo Tribunal.

7.- El acto de defensa de la tesis doctoral, tendrá lugar en sesión

Hogeita bat. 5. artikulua 16. idatz-zatia ezabatzea, edukirik gabe geratuko baita.

Hogeita bi. 18. artikuluko 1., 3. eta 7. idatz-zatiak honela geratuko dira:

1.- Gehienez ere 15 eguneko epean, doktoretza tesia epaitzen duen epaimahaia izendatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, NADOEko Zuzendaritza Batzordeak tesiaren ale bat, euskarri elektronikoan, jarriko du epaimahaikide titularren eskura, doktoregaiaren curriculum vitaearekin batera.

Halaber, epe horren barruan, NADOEko Zuzendaritza Batzordeak jarriko ditu epaimahaiburuaren eskura araudi honetako 14. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik kanpoko berrikusleek egindako txostenak. Txostenek eragozpenen bat jartzen badute, epaimahaiko buruak erabakitzen ahalko du defentsa-ekitaldia atzeratzea, aukera emateko doktoregaiari eragozpenei aurre egiteko. Nolanahi ere, atzeratze horrek ez ditu luzatuko hurrengo idatz-zatian aipatzen diren epeak.

3.- Gainera, tesiaren ale bat, euskarri elektronikoan, epaimahaikide titularren eskura jartzen denetik hiru hilabeteko epean gehienez ere, eta defentsa egin aurretik, gutxienez 15 egun naturaleko epean eta gehienez ere 3 hilabete lehenago, epaimahaiaren idazkariak defentsa ekitaldiaren deialdia egin dela jakinaraziko dio NADOEri. Deialdian zehaztasunez emango da ekitaldiaren eguna, tokia eta ordua.

4.- Epaimahaiak ez baditu betetzen aurreko idatz-zatian ezarritako epeak, NADOEko Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen ahalko du epaimahaiburuari eskatzea defentsa ekitaldirako deialdia berehala egiteko, edo bestela izendapena baliorik gabe utzi eta programako irakaskuntza batzordeari eskatzea beste epaimahai berri bat proposatzeko.

7.- Tesiaren defentsa ekitaldia jendaurreko saioan egingo da

pública durante el periodo lectivo del calendario académico. A estos efectos se entienden periodos no lectivos los vacacionales de Navidad, Semana Santa y el mes de agosto. En casos debidamente justificados, por circunstancias excepcionales que imposibiliten la presencia física de un miembro del Tribunal, el órgano responsable de los estudios de doctorado en la universidad podrá autorizar su participación por videoconferencia u otro medio tecnológico de comunicación que permita el intercambio simultáneo de información mediante imagen y sonido. En todo caso, será obligatoria la presencia física en el acto de defensa de tesis, tanto del doctorando como del Secretario del Tribunal.

La defensa de cualquier tesis en donde uno de los miembros del Tribunal participe de forma virtual deberá ser expresamente recogida en el acta.

Veintitrés. Suprimir el apartado 2 del artículo 18, que queda sin contenido.

Veinticuatro. Modificar los apartados 1 a 5 del artículo 19, que quedan redactados en los siguientes términos

1.- Una vez se haya realizado el acto de defensa, tras la deliberación a puerta cerrada del Tribunal y teniendo en cuenta también las valoraciones realizadas por los revisores externos, y el documento individualizado de actividades del doctorando, el Tribunal emitirá su calificación en el mismo acto de defensa.

El Secretario del Tribunal, con el visto bueno del Presidente, emitirá un informe sobre esta calificación, en el que se reflejarán también las valoraciones de los revisores externos. Este informe se adjuntará al acta de esta sesión.

2.- El Tribunal otorgará a la tesis la calificación global de acuerdo con la siguiente escala: No apto, aprobado, notable y sobresaliente. El Secretario hará constar en acta esta calificación y la notificará al doctorando y al director y codirectores de tesis.

3.- En aquellos actos de defensa y lectura de

ikasturteko egutegiko irakastaldiaren barnean. Horretarako, ez dira irakaskuntza-aldiak izango Eguberri, Aste Santu eta abuztuko oporraldiak. Behar bezala justifikatutako kasuetan, epaimahaikide bati saiora joatea eragozten dioten ohiz kanpoko zirkunstantziak direla-eta, unibertsitatean doktoretza ikasketen ardura duen organoak aukera izango du baimena emateko epaimahaikideek saioan parte har dezaten, bideokonferentziaren bidez edo irudiaren eta soinuaren bidez informazioa aldi berean trukatzeko modua emango duen komunikaziorako beste bitarteko teknologiko baten bidez. Edonola ere, nahitaezkoa izango da tesia defenditzeko ekitaldian epaimahaiko idazkaria eta doktoregaia fisikoki bertan egotea.

Epaimahaikideetako batek tesi baten defentsan birtualki parte hartzen badu, idatziz jasoko da berariaz aktan.

Hogeita hiru. 2. artikulua 18. idatz-zatia ezabatzea, edukirik gabe geratuko baita.

Hogeita lau. 19. artikuluko 1.tik eta 5.erako idatz-zatiak aldatzea, honela geratuko baitira:

1.- Defentsa ekitaldia egin eta gero, eta epaimahaiak atek itxita eztabaidatu ondoren, eta kontuan hartuz kanpoko berrikusleek egindako balioespenak eta doktoregaiaren jardueren banakako dokumentua, epaimahaiak bere kalifikazioa emango du defentsa ekitaldian bertan.

Epaimahaiko idazkariak, epaimahaiburuaren oniritziarekin, txosten bat egingo du kalifikazio horri buruz, zeinean kanpoko berrikusleen balioespenak ere aintzat hartuko baitira. Txosten hau saioko aktari erantsiko zaio.

2.- Epaimahaiak kalifikazio osoa emango dio tesiari eskala honen arabera: Ez gai, gai, oso ongi eta bikain. Idazkariak kalifikazio hau jasoko du, eta doktoregaiari eta tesiaren zuzendariari eta zuzendari-kideei jakinaraziko die.

3.- Epaimahaiburuak edo epaimahaikideren batek bideokonferentziaz, edo bertaratze

tesis doctorales en las que el Presidente y/o el Vocal asistan por videoconferencia u otro medio tecnológico que implique su asistencia virtual, se tendrá en cuenta lo siguiente:

a) El Secretario hará constar en el acta el nombre y apellidos de los intervinientes mediante videoconferencia u otro medio tecnológico. Asimismo, además de la calificación global del doctorando, hará constar en acta el voto que emita cada miembro del Tribunal, con independencia del medio al que asista a la sesión.

b) Asimismo el Secretario, antes del inicio de la sesión del acto de defensa, se encargará de hacer llegar a los miembros del Tribunal que asistan por videoconferencia u otro medio tecnológico la papeleta de votación y el sobre en el que la deben introducir para la emisión del voto secreto cum laude en los casos que proceda.

El Secretario se encargará de facilitar a todos los miembros del Tribunal, con independencia de que asistan físicamente o virtualmente a la sesión, los mismos sobres y papeletas de votación, y se asegurará de que todos los miembros emiten su voto en estos sobres y papeletas.

4.- Si la calificación global de la tesis doctoral es de “Sobresaliente”, cada uno de los miembros del Tribunal deberá emitir un voto secreto, proponiendo si procede la obtención de la mención “cum laude”, introduciendo en un sobre cerrado la papeleta del voto, que será firmado por el Secretario del Tribunal en la solapa.

Estos sobres se custodiarán por el Secretario del Tribunal hasta que tenga lugar la correspondiente sesión de escrutinio.

Los miembros del Tribunal que asistan por videoconferencia u otro medio tecnológico, cumplimentarán la papeleta de votación, y la introducirán en el sobre que les haya facilitado el Secretario para esta votación.

Este sobre de votación lo introducirán en un sobre ordinario, debidamente precintado, en el que constarán en la solapa los datos del miembro del Tribunal que vota, y su firma. Este sobre lo dirigirá por correo certificado al Secretario del Tribunal.

virtuala dakarten beste bitarteko teknologikoez parte hartzen duten doktoretza tesiak irakurtzeko edo defenditzeko ekitaldietan, gorabehera hauek hartuko dira kontuan:

a) Idazkariak aktan jasoko ditu bideokonferentziaz edo beste bitarteko teknologiko baten bidez parte hartzen dutenen izenak eta deiturak. Halaber, doktoregaiaren kalifikazio globalaz gain, epaimahaiko kide bakoitzak eman duen botoa jasoko du aktan, ekitaldian parte hartzeko modua edozein delarik ere.

b) Halaber, idazkariak, defentsa ekitaldiaren saioa hasi baino lehen, bideokonferentziaz edo beste bitarteko teknologiko baten bidez parte hartzen duten epaimahaikideei bozka emateko txartela helaraziko die, baita txartela sartzeko erabili behar duten gutun-azala ere, cum laude aipamena emateko bozka sekretua eman behar bada, hala badagokio.

Idazkariaren ardua izango da epaimahaikide guztiei, saioan fisikoki edo birtualki parte hartzen ari diren kontuan hartu gabe, bozketa txartel eta gutun-azal berdinak ematea, eta ziurtatuko du epaimahaikide guztiek txartel eta gutun-azal horiek erabiliz ematen dutela bozka.

4.- Doktoretza tesiaren kalifikazio osoa “Bikain” bada, epaimahaikide bakoitzak isilpeko botoa eman beharko du, eta, bidezkoa bada, cum laude aipamena lortzea proposatuko du, eta gutun-azal itxi batean boto-txartela sartuko du. Epaimahaiko idazkariak azal-hegalean sinatuko du gutun-azala.

Epaimahaiko idazkariak gorde eta zainduko ditu gutun-azal hauek boto-zenbaketa egiteko saioa egiten den arte.

Bideokonferentziaz edo beste bitarteko teknologiko baten bidez parte hartzen duten epaimahaikideek bozketa txartela beteko dute, eta idazkariak bozketa honetarako eman dien gutun-azalean sartuko dute.

Bozketarako gutun-azal hau beste gutun-azal arrunt baten barruan sartuko dute, behar bezala zigilatua, eta gutun-azal horren hegalean bozka ematen duen epaimahaikidearen datuak jasoko dira, baita bere izenpea ere. Gutun-azal hau

El Secretario una vez garantizada la corrección y veracidad del envío recibido, lo custodiará junto a los demás votos hasta que se los entregue o remita al Director de la EDONA para que proceda al escrutinio.

5.- El escrutinio de votos sobre la concesión de la mención de cum laude se realizará por el Director de la EDONA en presencia del Secretario de la EDONA, o de quién le sustituya en caso de ausencia. El Secretario o quién le sustituya levantará acta del resultado de este escrutinio, indicando cuántos votos se han emitido, y detallando el sentido de cada uno de los votos, así como cualquier incidencia que se haya producido tanto en la votación como en el escrutinio.

La mención se otorgará cuando se consiga el voto favorable de todos los miembros del Tribunal.

El Director de la EDONA dará traslado del resultado de este escrutinio al Comité de Dirección de la EDONA, que adoptará de conformidad con el mismo el acuerdo de concesión o denegación de la mención cum laude.

Este acuerdo será notificado al interesado, a los miembros del Tribunal y al director y codirectores de tesis.

Veinticinco. Modificar 2, 5 y 6 del artículo 20, que quedan redactados en los siguientes términos

2.- En circunstancias excepcionales determinadas por la Comisión Académica del Programa, como puede ser, entre otras, la participación de empresas en el programa, la existencia de convenios de confidencialidad con empresas o la posibilidad de generación de patentes que recaigan sobre el contenido de la tesis, el Comité de Dirección de la EDONA habilitará procedimientos para desarrollar el proceso de autorización, depósito, defensa y posterior publicación descrita en los artículos anteriores de forma que se asegure la no publicidad de estos aspectos.

5.- No obstante lo anterior, cuando concurren las circunstancias a que se refiere el apartado 2, el Comité de Dirección de la EDONA podrá acordar que no se archive la tesis en repositorio institucional hasta que desaparezcan las

epaimahaiko idazkariari bidaliko dio, posta ziurtatuaz.

Idazkariak, jasotako bidalketa zuzena eta egiazkoa dela baieztatu eta gero, gorde eta zaindu egingo du gainerako boz guztiakin batera, NADOEko zuzendariari eman edo bidaltzen dizkion arte, honek zenbaketa egin dezan.

5.- NADOEko zuzendariak egingo du cum laude aipamena ematearen aldeko botoen zenbaketa, edo haren ordezkioak, zuzendaria ez badago. Idazkariak, edo haren ordezkioak, jasoko du boto-zenbaketa honen akta, esanez zenbat boto eman den, eta boto bakoitzaren nolakoa ere, baita bozketan edo boto zenbaketan gertatu den beste edozein gorabehera ere.

Aipamena lortuko da epaimahaikide guztien aldeko botoa lortzen denean.

NADOEko zuzendariak boto zenbaketa emaitza helaraziko dio NADOEko Zuzendaritza Batzordeari, eta honek, horren arabera, erabakiko du cum laude aipamena ematea, edo ez.

Erabaki hau interesdunari, epaimahaikideei eta tesiaren zuzendariari edo zuzendari kideei jakinaraziko zaie.

Hogeita bost. 20. artikuluko 2., 5. eta 6. idatz-zatiak aldatzea, honela geratuko baitira:

